



**2013KO ABENDUAREN 20KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko abenduaren hogeian, arratsaldeko ordu batetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Haizea Mendia Insausti eta Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko abenduaren 6an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 77 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA HEMEREZI MILA ETA HOGEI EURO ETA HAMALAU ZENTIMO (79.020,14 €)tako onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN ARRATOIEN AURKAKO KANPAINEN ZERBITZUAREN KONTRATAZIOARI ATXIKIPENA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakin arazi du, arratoein aurkako kanpainen zerbitzua kontratatzeke kontratazio espedienteari hasiera ematera dihoala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeke hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, erabakitzen du: Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak arratoein aurkako kanpainen zerbitzua kontratatzeke hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.



IV.- AURRERATUTAKO ERRETIROARENGATIKO KALTEORDAINA.-

Udal honetako funtzionaria zen Juana Garmendia Izagirrek aurreratutako erretiroa hartu du 2013ko urriaren 22an, eta Udalhitzen 95. eta 96. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera dagokion kalteordaina eskatu du.

Erretiroa hartu duen egunean 6 hilabete falta zitzaizkion 65 urte betetzeko.

Udalhitzen arabera 3 hilabeteko soldataren pareko kalteordaina dagokio.

Guzti hau kontutan izanda eta Ogasun Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Juana Garmendia Izagirrerri Udalhitzen arabera dagokion kalteordaina aitortzea eta ordaintzea erabakitzen du.

Dagokion zenbatekoa BEDERATZI MILA ZAZPIEHUN ETA HAMAZAZPI EURO ETA LAUROGEITA SEI ZENTIMO (9.717,86 €) da.

V.- KULTURAKO LAGUNTZAK.-

Kultura taldeei dirulaguntzak emateko Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako dirulaguntza hauek onartzea erabakitzen du:

Kultur taldea	Zenbatekoa
Goierriko Bertso Eskola	1.210,75 €
Oin Arin dantza taldea	7.605,25 €
Kantaka	1.341,25 €
Antzar Gazteak	1.761,75 €
Lazkao Abesbatza	1.000,00 €
Orobione Abesbatza	1.131,00 €
Guztira	14.050,00 €

VI.- EUSKARAKO LAGUNTZAK.-

Euskara Batzordetik Ziburuko Pierres Larzabal ikastetxeari dirulaguntza emateko proposamena ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, HIRUREHUN EURO (300 €)ko dirulaguntza onartzea erabakitzen du. Dirulaguntza hau San Benito Ikastolari emango zaio honek dagokion lekura helarazi dezan.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko ordu bata eta hamasei direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

